



ORIOKUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2011ko ekainaren 8a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:05

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez de Gereño, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK:

Iñaki Garcia Aranbarri (EB-B/Aralar) eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE-PSOE, herritik kanpo daudelako).

AZTERGAI-ZERRENDA

GAI BAKARRA.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren honako bilkuretako akten zirriborroak: 2011ko urtarrilaren 25eko ohiko bilkuretako eta 2011ko otsailaren 28ko, apirilaren 6ko eta maiatzaren 17ko ezohiko bilkuretakoak.



Esan-eginak

GAI BAKARRA.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN HONAKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK: 2011KO URTARRILAREN 25EKO OHIKO BILKURETAKOA ETA 2011KO OTSAILAREN 28KO, APIRILAREN 6KO ETA MAIATZAREN 17KO EZOHICO BILKURETAKOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Idazkariak hitza hartzen du eta zera adierazten du: 2011ko urtarrilaren 25eko euskarazko aktaren zirriborroan, 9. orrialdean eta 18. artikulua aipatzen denean, oker bat dagoela azken lerroan: “...urtarrilaren 1etik 15era...” esaten duen tokian “...urtarrilaren 1etik uztailearen 15era...” esan behar duela.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira BEDERATZI BAIEZKO BOTO;** gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren honako bilkuretako aktak: 2011ko urtarrilaren 25eko ohiko bilkuretako eta 2011ko otsailaren 28ko, apirilaren 6ko eta maiatzaren 17ko ezohiko bilkuretakoak, kontuan hartuz 2011ko urtarrilaren 25ean egindako ohiko bilkurako aktan goian aipatutako zuzenketa.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutakoetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,